



HIGA- Hizkuntza Gutxituetako Gazteen Topaketa



14.Juil - 18.Juil 2025

Cod. L06-25

Modalité:

En personne

Édition

2025

Type d'activité

Workshop

Date

14.Juil - 18.Juil 2025

Location

Letren Fakultatea

Langues

Basque

Reconnaissance officielle par l'État

50 heures

Comité d'organisation



Description

HIGA hizkuntza gutxituetako hiztun gazteentzako nazioarteko topaketa da, eta hizkuntza horiek biziberritzea eta mundu mailako hizkuntza **komunitate ezberdinen arteko elkarlana** sustatzea du helburu. **Bost eguneko programa** honetan, parte-hartzaileek aukera izango dute hizkuntza-biziberritzean eta -aktibismoan trebatzeko, beren esperientziak partekatzeko eta besteen errealitateetatik ikasteko. Topaketak espazio bat eskaintzen die belaunaldi berriei beren komunitateetako hizkuntzak biziberritzeko, beren kultura eta ondarea zaintzeko estrategiak ikasi eta praktikatzeko, eta lankidetzak sareak osatzeko. Gainera, arratsaldean irekitako mikrofonoek, kontzertuek, dantzek eta bisita gidatuek bertako eta nazioarteko kulturarekin konektatzeko eta esperimentatzeko aukera emango diete parte-hartzaileei, hainbat artistaren bidez.

2011n Gasteizko Udalak martxan jarri zuenetik, HIGA nabarmen hazi da. 2023an, orain arteko topaketarik anitzena egin genuen, 55 hizkuntza gutxituren ordezkari gisa 75 parte-hartzaileekin. 2025ean hazten jarraitzeko ideiak poztzen gaitu!

2025eko edizioa handiagoa eta hobeia izango da, eta nazioarteko parte-hartzaile gehiago izango ditu, **aktibistak, akademikoak eta ikertzaileak** barne. HIGA topaketan jasotako prestakuntza Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) emandako Uda Ikastaroaren ziurtagiri baten bidez aitortuko da. Edizio berri honek gai berriak jorratuko ditu, artearen eta hizkuntza aktibismoaren arteko intersekzioa, besteak beste.

Topaketa hirueleduna izango da, ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz, interprete profesionalekin.

Objectifs

Hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten gazteak ahalduntzea, aktibismo linguistikorako tresna praktikoak eskainiz.

Gazteen parte-hartzea hizkuntza-politikak formulatzeko prozesuetan sustatzea, erabakiak hartzeko guneetan eragina izateko.

Nazioarteko lankidetzak sareak sortzea, gazte aktibistak, akademikoak eta hizkuntza arriskuan dauden komunitateak konektatuz.

Hezkuntza ez-formala biziberritze linguistikorako tresna gisa sustatzea, metodologia parte-hartzaileak eta dinamika berritzaileak integratuz.

HIGArekin bidez garatutako ekimenak iraunkortzea, proiektuen kudeaketa eta finantzaketa estrategiak landuz.

Mundu mailako hizkuntza **komunitate ezberdinen arteko elkarlana** sustatzea du helburu.

Organisée par



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Directed by



Nerea Abad Barquero

Gasteizko Udala

Lieu

Araba